

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Etxebizitzaren kate luzea

Gure gurasoen garaian zapalketa politikoa zen, langileak ezin ziren kexatu ere egin berehala baizuten polizia edo goardia zibila egurra ematen; “gorriak”, langileen eskubi-deak exijitzen zituzten pertsona haiek, itzalean egon ohi ziren denbora luzez. Gure belau-naldia langabeziaren mamuaren beldur hazi zen, ezagutu izan dugu herri honek urte askotan izan duen langabezi tasarik altuena eta egoera horretan oso gutxi animatzen ziren baldintza hobek errebindikatzera, “nahikoa dugu lana izanda”.

Orain, berriz, langileak antolatzeke aukera handiagoak daude, eta langabezia murrizten ari da urtez urte, Euskal Herriko zenbait eskualdetan ia desagertu arte. Baina bada gizartea, gazteak batik bat, estuki lotzeko bide berri gehiago. Lana bada, baina sarritan nahiko era kaxkarean ordainduta; izan ere, gastua, eguneroko bizimoduan egon da aldatetarik handiena azken urteotan.

Ikasketak amaitu eta Unibertsitatean lanean hasi nintzenean, duela 23 urte, 60.000 pezeta irabazten nituen hilero (360 euro). Diru horrekin gurasoen etxetik irten, neskalagunarekin bizitzen jarri eta bion soldatarekin ondo bizitzeko modua genuen. Gaur egun, aldiz, bizimodua garestiagoa izanda ere, bada ezberdintasun nabarmena: etxebizitza.

Gurasoen etxetik irten nahi duen gaztea, bere bikotekidearekin –edo bakarrik– bizi nahi



ALEX LARRETXI

duen gaztea etxebizitzaren kate luzeak harra-patuta bizi da. Hipotekek ez dute soldataren zati bat bakarrik kentzen, hipotekek askatasuna kentzen digute. Nork egingo dio aurre nagusiarri, enpresa buruari, etxea jokoan duenean? Nork egin dezake hainbat egunetako greba, hilaren bukaeran jateko gurasoen etxera joan behar duenean? Nork erabakiko du familia izatea 40 metro karratuko etxe batean? Edo nor bereizten da, bereiztu ondoren alokairu bat ordaintzeko dirua ez duenean? Hipotekek, etxebizitzaren prezio zoro horiek, gure bizitza hipotekatzen digute.

Aspaldian ez da egon gazte langileak mantsotzeko aukera hoberik, nor bere etxean eta bere kontuetan murgiltzeko parada egokiagorik. Baina, azken hogeitun urteotan etxebizitza izan duen prezio igoera honek apur-apurka gizarteko arlo askotan du eragina; gero eta seme-alaba gutxiago omen dugu, asteburuetako parrandak ere murrizten ari gara, erosketak egiterakoan gero eta gehiago begiratzen zaio prezioari –interes igoera bakoitzean apur bat gehiago–, eta gastua kontrolatzen dugu, garrantzitsuena eutsi, eta osagarria baztertu; jatekoa bai, baina liburua, esaterako, ez. Izan ere, kultur mundura, harreman pertsonaletara, lan baldintzetara eta beste mila txokotara iristen baizaigu etxebizitzaren kate luzea. ■

«
Aspaldian ez da egon gazte
langileak mantsotzeko aukera
hoberik, nor bere etxean eta
bere kontuetan murgiltzeko
parada egokiagorik
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Nagusi. Hori ematen du aditzera behintzat, Frantzia igaro berri hauteskundetako bezperan,

IFOPk M6 telebista katearentzat egindako inkestak. Nicolas Sarkozyrentzat %52,50 ematen zuen bitartean Ségolène Royali %45,50 ematen ziolarik. Baina inkestaren ekarpen nabarmenena, bozak adinaren arabera egituratzean zetzan. Hirurogei urtetik beherakoek multzo guztietan sozialisten buruak irabazten zuen. Hortik goitikoenean aldiz, Royal emazteak %25 besterik ez zuen biltzen. 18/24 urtekoek %53. 25/34koek %54. 35/49koek %56. 50/64koek %51. Beraz, argi da. Zenbat eta zaharra-

Zaharrak

honetik tirania berri baten aurrean jartzen ditu gazteak. Izan ere, herragune nostalgikoen eraginpean jartzen ditu egoera soziologiko hori itzulikatzeke ahalmenik gabe, gizartea geroz eta zaharragoa izanen denaren iragarpena kontuan hartzen badugu. Guri dagokigunez, adinean gora eta arrotzak Frantzia, esperantzarako motibotxo badugu, behingoz Urruñan ere Hendaian eta Ziburun antzera eskuina beherago kokatu baita ezker arrosa baino. Zerbait bada behintzat. Pobreak etxean pozak lekua urri. ■

goa populazioa, orduan eta eskuindarragoa agintea. Sarkozy ez da izan langile eta indar sozial bizienen hautagaia, erretretatuena baino. Eta